

**EUSKALTEL SAK** konpromisoa hartzen du emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna barnean hartuko duten politikak ezartzeko eta garatzeko, inor zuzenean edo zeharka diskriminatu gabe sexuagatik, eta halaber erakundearen barruan benetako berdintasuna lortzera bideratutako neurriak bultzatzeko eta sustatzeko, emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna printzipio estrategiko gisa ezarriz gure politika korporatiboan eta giza baliabideei dagokienean, printzipio horri Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ematen zaion definizioaren arabera.

Enpresa honen jardura garatzen den arlo guzti-guztietan, hasi hautaketatik eta sustapenera, tartean direla soldata-politika, trebakuntza, lan- eta enplegu-baldintzak, laneko osasuna eta laneko eta kontziliazioko denbora, sexu-jazarpenera eta sexuan oinarritutako jazarpenera prebenitzea eta halakoen aurrean jardutea, eta hizkuntzaren erabilera diskriminatorioa, komunikazioa eta bikoiztasuna, geure gain hartzen dugu emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunaren printzipioa, bereziki erreparatuz zeharkako diskriminazioari, halakotzat hartuta "itxuraz neutroa den xedapen, irizpide edo jardun batek sexu jakin bateko pertsonentzat desabantaila ekartzea beste sexuko pertsonen aldean".

Komunikazioari dagokionez, hala barrukoari nola kanpokoari, alde horretatik hartzen diren erabaki guztien informazioa emango da, eta enpresaren irudi bat emango da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipio horrekin bat datorrena.

Aipatutako printzipioak praktikan jartzeko, berdintasun-neurriak sustatu behar dira, eta, horretarako, berdintasunerako plan bat ezarri behar da, hobekuntzak ekarriko dituena. Helburu nagusia izango da erakundearen eta, hedaduraz, gizarte osoan emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzea.

Helburu hori betetzeko, langileen legezko ordezkariak parte hartuko dute, ez bakarrik negoziazio kolektiboaren prozesuan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoak ezartzen duen moduan, baizik eta aipatutako berdintasun-neurriak edo berdintasun-plana garatzeko eta ebaluatzeko prozesu osoan.

Derion, 2020ko irailaren 21ean



euskaltel 

Parke Teknologikoa, 809  
José Miguel García Fernández  
EUSKALTEL SAKo CEOa